

# Liburuak

KRITIKA

## Bi aurpegi

Helduen literatura

Igor Estankona

GURE GORPUTZ eta arima galkorre emandako poema liburua da Mikel Alberdi Irizarrena, eta gorputzari eta arimari egindako trazu lausodun omenaldia dira Lurdes Larrañaga Sanzen marrazkiak. Horra liburuaren bi aurpegiak, bakarrean bilduak. Titulua zehatza eta egokia begitandu zait, hizkien eskaleen antzera baitabil poeta ibili ere, maileguan hartuz erreferentzia klasiko eta kultistak, keinu eginez jainkoei, artistei, idazleei eta hiriei... are Négritudeari, eta naturaren indarrari. Ariketa eskapista eta surrealista etengabekotan aurkitu ditu Alberdik bere burua eta egia mikatz bat: “bidaia oinez egiten da/ diote poetek/ nire pauso bakoitza/ usteltzen jarraitzeko/ borondate isila/ besterik ez da”. Edo “jadanik ez dut hetero edo homo izan nahi/ guruinik aldarrikatu/ identitaterik bermatu/ utz diezaiodan nire gorputzari/ musika berriak jotzen...!”.



Erdigune obsesibodun eraztun jakinetan barna garmatza idazleak. Sexua, justizia, estetika baten bilaketa... Horiek

**Hizkien eskalea.**  
Mikel Alberdi.  
Autoedizioa.  
63 orrialde.

denak ez dira gaia, baina bai mintzagaia. Dena bere baitan hartuz eta lerro bakoitza bustiz, oster, heriotza dago nonahi. Edo horixe begitandu zait; gai nagusia patu antzeko bat dela eta bizitza honetako estrategiek ez dutela inoiz lortuko azken buruko herio nahasaraztea.

Unea poesiaren aurkakoa ere baden lan honetan orekaren bilaketa eta harmonia ez dira helburu. *Hizkien eskalea* hanpatua da, gordina. Existentzia bera biluza eta gogorra denez, poetak biluzik eta gogor ekiten dio kontenplazioari: “ez dakit zergatik nahi dudan idatzi/ idaztea kostatzen zait eta hitzek ezin dute inoiz/ nire pentsamendu jariora errenditu/ ez dakit idazteak ez ote duen zailtzen/ nire desagertze-ko bokazioa...”. Baina desagertuz-desagertuz joan beharrean gabetzen, kargatuz-kargatuz nahi du gartu poesia bat pertsonaletik kolektibora doana, eite proportzionatuetatik moderniarra eta hitz jokora egiten duena, eta isiltasunetik hitz jarioa.

Mikel Alberdik, finean, apainduraz kargaturiko poesia purua egin nahi izan du. Lortzen zaila den beharlekua da hori, ordea. Gusturago sentitu naiz *Ez izan* poemako mezu soilarekin, kiribildu eta konplikatu egiten diren irudi-mosaikoekin baino. Kosmopolitismoz mozorrotutako hala-holako poemak eta inora ez daramaten bide luzeegiak hartu dituela iruditzen zait behin baino gehiagotan, eta hain zuzen idazlearen neke horiek bihurtzen direla irakurlearentzat traba. ■



## Mungia

Liburu azoka otsailaren 24etik martxoaren 4ra, Mattin plazan

### EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

**Bizi irakurriz!**